



SORALUZeko UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

**SORALUZeko UDALAREN ETA PIL-PILEAN EUSKALTZALEEN ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA,
PIL-PILEANEN URTEKO EGITASMOAK DIRUZ LAGUNTZEKOA**

Soraluzen bi mila eta hogeita hiruko apirilaren 25ean.

BILDURIK

Soraluzeko Udaleko Alkatea, Iker Aldazabal Basauri eta bestetik, Arianne Unamuno Loidi, Pil-pilean Euskaltzaleen Elkartearen lehendakaria.

ADIERAZI DUTE

1.-Pil-Pilean Euskaltzaleen Elkarteak Soraluze euskaldunagoa izateko lanean hainbat arlo jorratzen dituela: sentsibilizazioa eta mintzapraktika, hizkuntza-ohituretan eragiteko egitasmoak, haur eta gazteen aisialdia, kultura eta hedabideak, guztiak euskaraz. Arlo horietan lanean diharduen elkarteak dela eta horretarako hainbat egitasmo martxan jarri eta hamaika ekimen/jarduerak antolatzen dituela urtean zehar.

2.-Pil-Pilean Euskaltzaleen Elkarteak, inolako irabazi asmorik gabekoa izanik, egiten duen lan eskergari behar bezalako aitortza egitea eta bide batez elkartearen geroa ziurtatu eta sendotzea dela hitzarmen honen helburu nagusia.

3.-Jardueren oinarria interes publikoa dela eta aipatutako jarduerok Udal aurrekontuan izendun gisa daudela aurreikusita.

Hori dela eta, hitzarmen hau sinatzea erabaki dute.

HITZARMENAREN XEDEA

1.- Hitzarmen honen xedea Soraluzen euskararen normalizazioaren bidean, Pil-pileanek 2023. urtean antolatuko dituen egitasmo eta jardueretarako dirulaguntzak zehaztea da.

HITZARMENAREN IRAUNALDIA

2.- Hitzarmen hau 2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egongo da indarrean.

DIRUZ LAGUNDUTAKO EKINTZAK

3.- Hitzarmen honen bidez, Elkarteak bere helburuak aurrera eramate aldera urtean zehar garatzen dituen egitasmoak eta antolatzen dituen ekintza hauek diruz lagunduko ditu Soraluzeko Udalak:

- Pil-pilean Herri Komunikabidea (aldizkaria eta plaentzia.eus).
- Euskararen normalizazioaren mesedetan burutzen dituen egitasmo eta ekimenak.
- Euskal kulturari lotutako ekimenak (Euskal Aratosteak, Korrika, Udate gaba, Gaztañerre kulturala, Olentzero eta Mari Domingiren kalejira eta programazioa...)
- Haur eta gazteei begirako ekimenak.



SORALUZeko UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

(*) Hitzartutako diru-kopuruetatik kanpo gelditzen dira Gaztañerre Kulturalaren baitan antola litezkeen kultur-ikuskitzunen gastuak.

DIRU-LAGUNTZEN KOPURUA

4.- Goian aipatutako ekintzak aurrera eramateko, Udalak, 2023. urtean, 38.654 euro emango dizkio Pil-pilean Euskaltzaleen elkarteari Euskara (%33,5), Kultura (%60,5) eta Haurrak eta Gazteak (%6) batzordeen aurrekontuetatik.

Gastu hau ondorengo aurrekontu gastu partiden kontura joango da:

- 1 1000.481.01.330.00 (229) Kultur dirulaguntzak: 23.385€
- 1 1200.481.01.335.00 (226) Euskara dirulaguntzak: 12.949€
- 1 1500.481.01.337.20 (388) Haurrak eta Gazteak Dirulaguntzak: 2.320€

4.1.- Udalak ez du inolaz ere finantzatzeko, klausula honetan adierazten diren diru laguntzen areagotzea ekar dezakeen aurrekontu desbideratzerik,

4.2.- Hitzarmen honetako dirulaguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publiko edo pribatuk xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Nolanahi ere, ez da gain-finantzaketarik izango eta hala gertatzen bada, dirulaguntza murriztu egingo da, dagokion gehienezko mugaraino. Guzti horrengatik jasotako dirulaguntzen berri zehatza eman beharko dio Elkarteak Udalari.

UDALAREN BETEBEHARRAK

5.- Dirulaguntza hau zati bakarrean ordainduko dio Udalak elkarteari, aurreko urteko memoria eta balantzea eta dagokion urteko egitasmoa eta aurrekontua aurkeztu ostean.

ELKARTEAREN BETEBEHARRAK

6.- Elkarteak, dirulaguntzaren onuradun den aldetik, honako betebeharrak izango ditu:

- 6.1.- Jasotako dirulaguntza, hitzarmenean adierazitako helburu zehatzetarako erabili beharko du.
- 6.2.- Hitzarmenean aurreikusitako egitasmoa osotasunean gauzatu beharko du.
- 6.4.- Egitasmo hauek ezagutarazteko erabiltzen duen edozein eratako publizitate eta iragarkietan Sorluze Udalaren laguntza duela adierazi beharko du argi.
- 6.5.- Sorluze Udalak orrialde erdi bat aldizkarian edota horren tarte baliokidea webgunean erabili ahal izango du hileroko berak antolatzen dituen ekintzen publizitatea edo iragarpena egiteko. Publizitate-modulu horiek diseinatze lanen kostua elkarteak hartuko du beregain eta aurreko zein atzeko azalen barrualdean argitaratuko dira, koloretan, aldizkariaren kasuan eta orrialdearen goiburuan webgunearen kasuan.
- 6.6.- Diru-laguntza jaso ahal izateko Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarteak urtero, euskararen erabilera normalizatzeko prestatu duen egitasmoa aurkeztu beharko dio udalari (proiektuen nondik norakoa; iraupena, maiztasuna, hartzaileak, parte hartzaile kopurua, programazioa...).



SORALUZeko UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

6.7.- Jasotako diru-laguntza, hurrengo urteko martxoaren 31a baino lehen justifikatu beharko du, udal ebazpenean eskatzen zaion bezala eta beti ere indarrean dauden udal araudi eta legediaren arabera. Dena den, edozein momentuan ere udalak eskubidea izango du Elkarteari finantzatuko jardueri loturiko diru-kontuen berri eman dezan eskatzeko.

6.8.- Elkarteak beste entitate batzuetatik jasotako diru laguntzen berri zehatza emango dio Udalari.

7.- Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarteak hitzarmen honetan jasotakoak betetzen ez baditu, hitzarmena bukatutzat emango da, udal araudian ezarritakoaren arabera jokatuz.

Eta horrela jasota uzteko eta euren adostasuna agertzeko, honako hitzarmen hau egin eta hasieran aipatutako toki-egunetan izenpetu dute bi parteek.

Iker Aldazabal Basauri
Soraluzeko Udaleko Alkatea



Arianne Unamuno Loidi
Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarte
Lehendakaria